



BIZKAIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

HAUTESKUNDE BATZORDEA

GAIA: ABENDUAREN 2KO BATZARREAN KLUBEK ORDEZKARITZA EGIAZTATZEKO ETA BOTOA EMATEKO JARRAIBIDEAK

Batzarkide agurgarriak:

Datorren **2025eko abenduaren 2an** Zuzendaritza Batzordea hautatzeko egingo den Ezohiko Batzar Nagusiari begira, eta bozketa-prozesua arintzeko zein forma-akatsengatik botoak baliogabetzea saihesteko helburuarekin, Hauteskunde Batzorde honek ordezkaritza-agiria betetzeko honako **DERRIGORREZKO JARRAIBIDE** hauek bidaltzen ditu:

1. KLUB BAT, ORDEZKARI BAT, PERTSONA BAT

Botoa emateko eskubidea Klubari dagokio (pertsona juridikoa), baina fisikoki pertsona batek gauzatu behar du.

- Ordezkaritza-agirian Kirol Etxera bertaratuko den pertsona fisikoaren **Izen-Abizenak eta NANa** agertu behar dira.
- **GARRANTZITSUA: Agirian agertzen den pertsonak soilik bozkatu ahal izango du.** Bozketa egunean beste pertsona bat badoa (nahiz eta klub bereko zuzendaritzako kidea izan), Hauteskunde Mahaiak **ez dio bozkatzen utziko.**

2. DERRIGORREZKO SINADURAK

Hauteskunde Araudiak (31.4 art.) zorrotz eskatzen du agiriak bi kargudunen sinadura izatea:

1. **Klubeko Idazkaria:** Ziurtagiria egiten duena.
2. **Klubeko Lehendakaria:** Oniritzia (O.E.) ematen duena.

Oharra: Bozkatzera doan pertsona Lehendakaria bera bada ere, agiria berdin-berdin bete behar da, eta berak sinatu behar du Oniritziaren atalean.

3. KLUBAREN ZIGILUA EDO IFK-REN KOPIA (LEGALITASUN BERMEA)

Hauteskunde Mahaiak agiriari balioa eman diezaion eta entitateak egindako agiri ofiziala dela egiazta dezan (eta ez partikular batek egindakoa), haren benetakotasuna bermatu behar da:

- **Zigilua:** Agirian **Klubaren zigilu ofiziala** egon behar da.
- **Zigilurik ezean:** Salbuespen gisa Klubak zigilurik ez balu, **DERRIGORREZKOA izango da klubeko IFK txartelaren (CIF) fotokopia** eranstea agiriari (grapaz lotuta), erakunde sinatzailearen nortasun juridikoa egiaztatzeko.

Zigilurik edo IFKrik gabe, Hauteskunde Mahaiak edo artekariak botoa inpugnatu lezakete, agiriaren jatorriari buruzko zalantzak direla eta.



Federación
Vizcaína
De Ciclismo

4. DOKUMENTAZIOA BOZKATZEKO UNEAN

Abenduaren 2an, Mahaiak zuen Klubari deitzen dionean, ordezkariak hurbildu eta honako hau eman beharko du:

1. **Ordezkaritza-ziurtagiri originala** (beteta, sinatuta eta zigilatuta). *Ez dute balio mugikorreko argazkiek edo posta elektroniko bidalitakoak.*
2. **Jatorrizko NANA**, pasaportea edo gidabaimena (agirian agertzen den pertsona dela egiaztatzeko).

5. BESTELAKOAK

- **Ez dago boto-eskuordetzerik:** Klub batek ezin dio bere botoa beste klub bati eman.
- **Pertsona bakar bat:** Pertsona berberak ezin du bi klub desberdinen ordezkaritza eramane.

Mesedez, eskatzen dizuegu dokumentazioa ondo berrikustea Batzarrera joan aurretik, zuen klubak arazorik gabe bozkatu ahal izango duela ziurtatzeko.

Adeitasunez,

HAUTESKUNDE BATZORDEA Bilbon, 2025eko Azaroaren 24.



FEDERACIÓN BIZKAINA DE CICLISMO

JUNTA ELECTORAL

ASUNTO: INSTRUCCIONES PARA LA ACREDITACIÓN Y VOTO DE LOS CLUBES EN LA ASAMBLEA DEL 2 DE DICIEMBRE

Estimados Asambleístas:

De cara a la celebración de la Asamblea General Extraordinaria para la elección de la Junta Directiva el próximo **2 de diciembre de 2025**, y con el objetivo de agilizar el proceso de votación y evitar la anulación de votos por defectos de forma, esta Junta Electoral remite las siguientes **INSTRUCCIONES OBLIGATORIAS** para la cumplimentación del documento de representación:

1. UN CLUB, UN REPRESENTANTE, UNA PERSONA

El voto lo ejerce el Club (persona jurídica), pero debe hacerlo una persona representante

- En el documento de representación debe figurar el **Nombre, Apellidos y DNI** de la persona física que acudirá presencialmente a Kirol Etxea.
- **IMPORTANTE: Únicamente podrá votar la persona que aparezca en dicho documento.** Si el día de la votación acude otra persona distinta (aunque sea de la directiva del mismo club), la Mesa Electoral **no le permitirá votar.**

2. FIRMAS OBLIGATORIAS

El Reglamento Electoral (Art. 31.4) exige estrictamente que el documento esté firmado por dos figuras:

1. **El/La Secretario/a del Club:** Que es quien certifica.
2. **El/La Presidente/a del Club:** Que es quien da el Visto Bueno (VºBº).

Nota: Si la persona que va a votar es el propio Presidente/a del Club, el documento debe rellenarse igualmente, firmando él/ella mismo/a en el apartado de Visto Bueno.

3. EL SELLO DEL CLUB O COPIA DEL CIF (GARANTÍA DE AUTENTICIDAD)

Para que la Mesa Electoral pueda dar validez al documento y verificar que se trata de un certificado oficial emitido por la entidad y no un documento particular, es necesario garantizar su autenticidad:

- **Sello:** El documento debe llevar estampado el **sello oficial del Club.**
- **Defecto de sello:** En el caso excepcional de que el Club no disponga de sello, será **obligatorio adjuntar una fotocopia de la tarjeta del CIF** del club grapada al certificado, para acreditar la identidad jurídica de la entidad firmante.



Federación
Vizcaína
De Ciclismo

Sin el sello o la copia del CIF, la Mesa Electoral o los interventores podrían impugnar el voto por dudas sobre la procedencia del documento.

3. DOCUMENTACIÓN EN EL MOMENTO DE VOTAR

El día 2 de diciembre, cuando la Mesa llame a su Club para votar, la persona representante deberá acercarse y entregar:

1. El **Certificado de Representación original** (rellenado, firmado y sellado).
No valen fotos en el móvil ni documentos enviados por email.
2. Su **DNI original**, pasaporte o carnet de conducir (para verificar que es la persona que pone en el papel).

5. OTRAS CUESTIONES

- **No existe el voto delegado:** Un club no puede dar su voto a otro club.
- **Unipersonalidad:** Una misma persona no puede llevar la representación de dos clubes distintos.

Rogamos encarecidamente que revisen la documentación antes de acudir a la Asamblea para asegurar que su club pueda ejercer su derecho al voto sin incidencias.

Atentamente,

LA JUNTA ELECTORAL

Bilbao, a 24 de noviembre de 2025.